

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

184n. Zenbakia Aprilla / Jorrailla  
1994



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## ESTIBALIZ'KO ATE EDERRA

- ERROMANIKU EUSKALDUNA
- AURREAN IRAIN-ORDEAK
- BARRUAN ARRIAGA'KO KOFRADIA
- EUSKALERRIA TA ELEIZEA

## ON KIXOTEK INOANEZ: ELEIZEAGAZ TOPAU GOZAK!

### Eleiz-gizonak eta euskerea

Bakoitzari berea. ukatu ezinekoa da Eleizak eta eleiz-gizon askok. menderik mende, kultura gorde, zabaldu eta geitzearen aide egindako lana.

Euskal Errira mugatu ezker, aspaldi batetik, eleiz gizonak izan dira euskera eta euskaltasuna ikertu eta bultzatu dabena.

Milla adibide jarri geinkez: Azkue. Lekuona. Barandiaran... ildako gitxi batzuk baino ez aipatzearren.

Ez dot esan gura eleiz gizonak izan zirenik bakarrak, baina kultura-Qizonen artean multzo aundi bat osotuko leukela argi dago. batez ere erri-jakituria eta berezeki, euskera ikertu, landu eta bultzatu lanetan.

### Txarto eskertuak

Euskeraren mundura etorri. ezin izango genduke gure izkuntzaren istoria idatzi. Eleiza eta bere gizonen lan aundia aipatu hank.

Kontutan eukitekoa eta eskertzekoa da erri onen aide egindako lanak. askotan txarto eskertuak, beste askotan gaizki ordainduak eta sarritan zigortuak. batzutan aginte politikoaren aldetik eta beste batzuetan Eleizako agintaritzaren aldetik.

Jakina euskeraren aide lan egiteak, batzuren begietatik ikusi ezker. beste esanai bat eukan.

### Batuaren arazoa

Orregaitik Eleiza. euskeraren norabidearen erreferentzia izan da askotan. naiz eta ainhat izan diran abade euskaltzale orreen lima gaitsetsi gura izan dabena.

Adibidez, euskalkien arazoa. edo obeto esanda. batuaren arazoa, pil-pilean asi zanean, euskalkien aldekoak lau abade agure zar baino ez zirenen ideia nongura zabaltzen eben batuzaleak. Gaur egun ere, ainbat batuzale dira ez dabena onartzen kritikarik txikiena ere. "batua" dalako on betirako eginiko gauza bat balitz bezela.

Orreentzat, oraindino euskalkien, eta gure kasuan bizkaieraren arloa, lau abade agure zarren arazoa da.

Baina orretan ere badago zer esanik.

### Zarrak eta gazteak

Ni neu, eta ez euki arren nire burua zuritu bearrik. ez pekatu rik damutzeko (beintzat arlo onetan), ez naz ez abadea, ez zarra, ez agurea, eta iruretatik hat ere ez naz sentitzen bizkaieraz idatzi arren.

Ori gitxi bada, badira gaur egun "erlijio" modernoan "abade" barn asko, ogei urtetako agure zar pilo itzela.

Badirudi gazte ez dana ez dala baliogarria.

Jakin egizu gazteazale, adinari buruz. gaztaroa denporeaz igaro egiten dala, baina zaartzarua, oster, il artekoa dala.

Beraz, eta geiago naastatu gura bank, adina eta bizitza-aroen arazoa, norberarengan dagoela uste dot, eta ez daukazuzan urteetan.

### Batuzaleak eta batasun-zaleak

Ikusiko zenduan ez irakurle. batuzaleetaz ari naz. eta ez batuzaleetaz.

Leenengoak oraindik euren itsukeria jarduten dabena artean, besteak ispiluaren aurrean jan-i, ber<sup>s</sup> aurpegia begiratu eta euskerrari bide barriak zabaltzen aalegintzen dira.

Gaurko mundua aurrera doa, eta oker dabil euskera ere mundu orretara moldatu bearrik ez daukala pentsatzen dauana, edo aintzinako gauza batzuk berg aintzinakotasunagaitik baztertu egin bear direla dinoana, naiz eta egindako "gauza" oraintsukoa izan.

Ez daigun aaztu "batu" orrek ogeitabost urte baino gitxiago daukazala: euskerak askoz geiago daukaz eta mendeetan zear "batuzale" askoren erasoak jasan dauz.

### Euskerea Eleizetan

Asierako aria artuaz, astean Eleizari buruz nenbilen, aspaldioan. ez dakit zer arazoigaitik. baina bai Eleiza erritar guztiei urbiltzeko atxakiaz, meza euskaldunak urritu egin dira, edo kasurik onenean elebidun biurtu.

Euskeraren erabilera, neurri baten igon egin bada, zergaitik gure meza euskaldunak gitxitu? Zoritzarrez elebidun egitekotan, euskerazko mezak egiten dira. ez erderazkoak. Erderazko meza baten "Gure Aita" euskeraz sartu ezker. betikoen berealako kekak entzun eta ainbat kasutan kontutan eukiten dira.

Alderantziz danean, gorago aipatu dodan kasuan bezelaxe, mezak izkuntza bietan egin, edo beste bank euskerazko meza kentzean, borondatezko arazo bat dala erantzuten da, euskera dakienak erdera ere badakialako.

### Izatea ta irudia

Nire ustez. mundu ez-eleizkor (eta kasu batzuetan anti-eleizkor) onetan, onerako eta txarrerako eleiza askoren ikuspuntuan dago. eta guretariko askorentzat ere erreferentzi bat dala kontutan izanik, Eleizak here izaeraz gain itxura ere jagon egin bear dau, eta gura dauanaren itxura emon.

Eleizak errikoia eta euskalduna izan gura badau, orrela agertu daitela.

Ez litzate gauza barria izango, orain ante ere jakin dau egiten eta.

Nonbaiten idatzia dagoanez "Cesar-en emazteak ondradua izanez gain, ondraduaren itxura emon bear dau".

---

# GUDARITZA

---

## Guda -artean, noiz arte?

Gudak eta euskaldunen arteko odol-isurteak negargarri biurtu dabe gure kondaira, eta ez, bear ba'da, geu ain guda-zaleak izan garalako, inguruko erriak erasotu gaituelako baiño: Alde batetik atal bat kendu, beste aide batetik beste bat, gaur Naparroa-alde, len Santander-alde, edo Aragoi-alde, gure kondaira geure lurraren galtzen kondaira da, zori txarrez.

Erdi-Arora begiraten ba'dogu, beste guda askoren artean or daukaguz Mungia'koa eta Arrigorriaga'koa. Eta aldi aretan gaiñera jauntxuen edo aide nagusien arteko burruka negargarriak. Euren artean geienak erriari begiratu bank euren jauntxukeria, erdi euskaldunak erdi erbestetarrak be ba-ziran eta, euren sendiari ta arrokeriari, aundikeriari, begiraten eutsela.

Eta oraintsuago guda aundi ta larriagoak izan doguz. Gogoratu Karlostarren gudak eta batez be 36'ko guda zapaltzaillea.

Noiz arte egon bear ete dogu guda-artean?

Guk ez dogu nai gudarik. Gaiñera ez gara erri sendoa, ez gara irabazleak izateko bestean idartsuak. Or ez dago gure nortasuna.

Itzi eiguzue bakean bizi izaten, itzi eiguzue erria izaten, eta kito!

## Gudaritza Euskalerrian

Gaur gudaroste aundiak osotzen dira, geienetan nai ta nai ez gazte guztiak zeregin orretara beartuta. Eta orregaitik, alperrerko eralketa aundiak egiten dira izkillu iltzailleak egiten. Or galtzen da beste zeregin askotarako bear litzaken erriaren dirua.

Gure aurreko aldietan arriskua sortzen zanean dei egiten jaken gudariak, kanpotik etorritako arerioaren erasoari erantzuteko. Aldundiak egiten eban dei on eta gure mugak ondo zainduta egozan.

Baiña eraso amaizten zanean, arerioa mugara-arte eroaten zanean, Luiando'ko zugatz maillatuan ezpatak sartu eta an amaizten zan gudea, erbesteko lurak norberaganatzen asi bank. Eta kanpoko agintariren batek laguntza eskatzen ba'eban, nai ebenak joaten ziran, aurretiaz sari ona eskuratuta.

## Gaurko menpebageak

Gaurko menpegean edo "insumisoak" Euskalerrian beti izan dan giroan dagoz eta, bear ba'da, gitxien agertzen daben errazoi andi bat dauke gudaritzara ez joateko: Euskaldunak orretan beti izan daben eskubi-dea. Ez da sarritan entzuten errazoi au.

Udal-Batz batzuk be gudari-zerrendak egiteko euren laguntza ukatu dabe. Ori be egokia da gure kondairan. Guk ez daukagu gudarosterik!

Euskaldunak ez dogu gudarik nai, ez dogu gudarako gertakuntzarik nai. Ondo dakigu gudarosteak gutzat kaltegarriak dirana.

## Gaurko gudaritza-ordezkeriak

Beste batzuk gudaritzara joatearen ordez erriaren aldeko lan batzuk egitea nai dabe, emen naiz erbestean.

Jokabide ona da on be, eta gauza ederrak egiten dabez sarritan, baiña jokabide orrek daukan akatsa, gudaritza bera ez ukatzea da. Dana dala, bide bat da eldu bear dan lekura eltzeko.

Euskalerrian eta munduak gudak kentzea nai ba'dau, gudarosteak eta izkilluak kentzera jo bear dau.

❖ ❖ ❖

# PAGO MARI (3n. SARIA)

Umea nintzanean, nire aititak ipuin politik kontaktzen eustazan sutondoan.

Orain kontatuko dautzuedan ipuin an, orain dirala urte asko gertatu zan Aralar'en.

Nire aititak kontatu eustala be, badira makiña bat urte, eta osta-osta gogoratu jat.

Milla irureun eta bederatzigarren urtean izango zan, gitxi gora bera, Aralar'en artzain egoan Anton'en alaba bakarrak, amazortzi bat urte ebazanean.

Aintziñako denboretan, neskatxak bardin-bardin joaten ziren mendira ardiak zaintzera, batez be Otsailean, sasoi aretan otsoak ugari ebiltzazan-eta.

Anton'ek ez eukan semerik eta bere emaztea amabi urte ziralila il jakon, bere alaba Mari'k sei urte eukazela.

Garai aretan gaur egun baiño ardi geiago egoten zan barrutian, bedar gozo-gozoa jaten ebela, eta gure neskatxa gaztea, an egoan pago eder andi baten azpian, here aitak opari'lez emondako txirulatxo bat joten, bide batez ardiak zaintzen ebazala.

Bera egoan tokitik baiño apur bat berago, gurpidea igaroten zan, eta andik; ibiltariak, erromesak, zerga kobratzailleak eta mota askotako jendia joian.

Egun motel baten, Mari gaztea egunero lez ardiak zaintzen egoala, abadegai gazte talde bat joian bidean zear eta euretari batek txirula soiñu polit bat entzun ebanean, bere lagunai aurrera joateko eskatu eutsen, berak, txirula-soiñu lastangarri a entzuteko asmoa eukan-eta.

Jakin-miñak eragiñik, bidetik urten eta txirula-otsa zetorren tokira abiatu zan.

Bere begien arridurarako dama gazte eder bat ikusi eban pago zaar baten azpian.

Aren begien dizdirak, bere aurpegiaren txuiitasunak, bere ille matats beltzak, txundituta itxi eben mutil gaztea.

Bertara urreratu eta izena itaundu eutson neska gazteari. Eta neskak:

Nik Mari daukot izena, erantzun eutsan zoli.

Neskeak berak be, ez eban sekula ikusi mutil ederragorik eta here izena Mikel ebala jakin ebanean, ea nondik nora aurkitu eban bera, itaundu eutson Mari'k.

Mutilak bi bider pentsatu bank, azaldu eutson abade egiteko asmotan joan zala seminario'ra eta bidean joiala, txiruta-soiñu lastan bat entzun ebala, berarena atan'be, eta ikustera joan zanean soiñua nondik zetorren jakiteko, bera ikusi ebala pago zaar aren azpian santa bat ba'litzan.

Kasua auxe da: bikotea lenengo begiradan maitemindu zala, eta Mikel'ek. Mari'rekin gelditzea erabagi eban, seminario'ra joateko asmoa bertan beera itxirik.

Mari'ri egunak oso labur egiten jakozan Mikel'en on-

doan. An zebillen bikote maitemindua Aralar mendikate aundian, bertako izadia'ren eregintza miresgarriak ikusiz.

Andik denbora batera Mikel'ek obeto pentsatu eban eta seminariora joatea erabagi eban. Mari'ri, aurkitutako pago zaar aren azpian alkartuko zireala barrero, Abenduaren ogeitalauan esan eta berbea emon eutson.

Musu emon ondoren, begietatik negar-anpulu batzuk ixuriz agurtu zan bikote alaia.

Mari oso triste egoan Mikel joan zanetik eta egunak iñoizkorik eta luzeen egiten jakozan.

Egunak joan eta etorri negua gogortuz, eta eguna laburtuz joian, otz geiago egiten ebala.

Alan'be gure Mari pozik egoan eguberri-eguna geroago eta urbillago egoala ikusirik.

Eldu zan ainbeste denbora itxaroten egondako egun zoriotsua.

Abenduaren ogeitalaua. Dena egoan elur zuriz estalirik eta otz itzala egoan. Mari urreratu zan, lenago bera eta Mikel aurkitu ziran pago zaararen ondora eta sakutxo bat pago-azpian jarriarik, bertan itxarotea erabagi eban.

Orduak joan eta etorri, egun argia xautuz zioan, otza geroago eta andiago egiten eban, baiña Mikel ez zan iñondik iñora agertzen.

Mari'k artega, zeozer gertatu jakolakoan pago azpian jarraitzen eban areik-eta gau zarratua eldu arte.

Urrengo goiza ere eldu zan, eta an egoan Mari, otzaz dardarka, erdi-makalik, goseturik eta itxaropena galdurik.

Andik egun batzutara artzain zaar batek aurkitu eban gure Mari, pagoaren azpian, ia edurraz estalduta eta ilda.

Artzaiari neska eder a orrelan ikusirik negarrak urtetan eutson here begi zaar areitatik, asko ikusitako begi zaar areitatik.

Altzoan artu eta bertan, pagoaren magalean illobiratu eban artzain zaarrek neskatxaren gorpua, egokiozan otoitzak egin ostean.

Gertaera triste an zabal ibili zan Euskalerrian zear.

Andik gitxira it zan Mari'ren aita here alabatxoari gertatutako jakin ebanean.

Ordutik ona, Aralar'en ez dago lengo beste pago, baiña nire aititak zein pago zan zeazki esan ez arren, urtean beñi joaten ziran inguruetako auzokideak pagoaren aurrera. Eguerezko gurutze bat ipiñi pago-enborrean, eta otoitz egiten eben.

Pago arek" pago bedekatu" eukan izena.

Iñork ez ekian Mikel'en barririk, baiña iñon bizirik eta jakiñaren gaiñean ba'egoan, ez neuke bera izatea nai.

---

## URKIOLA'KO ANTON DEUNA

---

Egunak ain eguraldi txarra ekarri arren, Bizkai'ko baserritarrak, batezbe Durangaldekoak, ez eben utzik egin gura izan, urtarrillako 17an, abere, solo eta uztaetako Babesle dan Urkiola'ko Anton Abad deunaren jaietako ospakizunetara.

Urkiola'ko Santutegiak, egun onetan, kortako abereak eta landak bedeinkatzeko eguna ospatu eban, eta zorionean diñoenez egin be, edurraren laguntasunean izan zan ezkerro, baserritarrak patxadaz eta nasai onartu ebelako egoerea, bertara urreratu zan jente askoren artekoen iritxiz.

Anton deunaren omenean egindako ospakizunak milla bat lagun batzea lortu eban, baita egun guztiko eguraldi txarra eta otzari aurpegia emon be.

Urkiola'ko larra 10 zentimetroko edurtza baten azpian egoan. Ara joandako gizakirik batek be, trebea izan arren, ez ei eban lortu, berebillez tontoreraiño igoterik, Santutegiraiño oiñez bidearen azken-zatia egiteko, ibilgaillua bideerdian edo, laga bear izan eban-eta.

Dana dala, Urkiola'ra doazan baserritarrak ez dabe, ezetara be, antxiñeko oitura zaarra eta Anton deunaren oneraspena, zaletasuna galdu gura izan; beraz, oitura on betetzeko, Urkiolan 500 bat okin (bertako ogiak) prestatu ziran, bedeinkatu ondoren jenteari banatzeko. Ara doazan

artekoak, askok, eurek dakarrez, bertan bedeinkatzeko, ogi eta frutuak, gero etxeratzeko.


Anton Abad deuna, aspaldiko garaietan, Bizkai'ko baserritarrakandik gurtua izan da. Antxiña baten, Anboto'ko Mari edo Anboto'ko Dama deritxonari egiten ei jakozan eskariak, bertako erregiña zalakoan, edo. Kristautasunean, lurralde onetako Nagusia dan Anton deunari gurtu eta eskariak egitera doaz, basetxeko abereen eta uztaen ugaritasuna eskatzen jakoz.

Baserri edo lurgintza mundua beerakada aundia izan dauan arren, baserritarrak ez dabe ospakizun au aiztu eta urtero doaz bere ikustaldia egitera, Anton deunari mese-deak eskaturik.

Anton Abad deunaren jaia, Anton deuna "zaarra"ren izenez be ezagutua da, Urkiola'ko aldarean Padua'ko Antonio'gaz kide izateagaitik. Urrengo domekan barrero ospatzen da jaia eta Urkiola'ko Gizonen Batzarreak antolatuturik oizko txarriaren zozketa egiten da.

Aurton barriz, egun onetan orrenbesteko edurtzak izan dirala-ta, gazteenak bere, edur artean jolastera joanda, ikusteko aukerea izan dogu. Benetan egun atsegiña izan da aurtengo Urkiola'ko Anton Deunaren eguna.

LARRONDO



### GABONAK

Zer ete dauka Gabon aroak?  
 Zirkin dagisku barruan.  
 Urte mugara urreratzean  
 Samurtasuna munduan.  
 Oroitzapenak gozo iatorkez,  
 Urte-muga amillean,  
 Geure biotzak ingurukoei  
 Zabal-zabalik jartean.

Bizi bearrak ittoten gaittu  
 Iraduz urte guztian;  
 Geugan doguna billa-bearrez  
 Egon-eziña barruan.  
 Gabon ba-lira egun guztiak  
 Au bai zoruna gurean!  
 Poztasunezko bake giroa  
 Duintasunagaz bidean.

AURRE'tar ANTON

# GIZARTE AUZIA (III)

Aurreko idazlana, iragarritako lan-uzte giro kezagarrian murgilduta gengozala bialdu genduan, eta urte-barriak zer ekarriko-ete euskun zain geratu giñan.

Jarritako epea bete ta ain kezkatu zan urtarrillaren 27 gn. eguna eldu jakun.

Biamonean lan-uzte ta bere arrakasteari buruz, talde burrukalariak barri antz-gabekoak emon euskuezan. Langilleen ordezkariak edo sindikatuen iritziz lan-uztea %90 ekoa izan zan; CEOE edo ugazabaen ordezkariak alan be %26ekoa zala iñuen. Madrid'eko Jaurlaritzak barriz, berak iragarritako neurriak, edozelan, eutsi egingo dauzala baiezten eban.

Ara emen danak garaille gertatzen diran burruka berezi bat, naizta galtzaille esatea egokiagoa izango litzakezala, gauzak lengo antzera gertau diran -ezkero.

Jakiña da olakoetan, bai batzuk bai besteak, barriak emotean, zertzeladak aldatu ta diran eta ez diranak esaten dabezala. Telebistan ikusitakoa ta laterriko egunkarietan irakurri doguzan albisteak arabera, jakin izan dogu oizko diran agerikunde-ibillaldiak uri nagusietan antolatu izan dirala. Itxuraz, lan-uztearen arrakasta ez da gauza izan, toki guztietan, eguneko lanaldi oso bat geldu -erazteko aiña.

Urtarrillaren 27 gn. egunean Bilbao'n kalez-kale ibilli gintzazanok, dalako "Piketesk" edo langille-taldeak batetik-bestetik ikusi al-gebazan, diru-etxe eta saltokiak itxi-erazten; onezaz gaifiera berealan, eurak jartzen eben iragarki bat "Lan-uzte dala-ta itxita" iñuala.

, ;,\*

Garraioetan be gutxienezko zerbitzuak bete bear ziranak, ezerean geratu ziran toki askotan. Bilbo'n beintzat, beestetan bezela erreko-ete dabezlan bildurrez-edo, oizko diran autobuzak ez genduzan ikusi.

Gaiñera, gauzak bata besteari lotuta dagozan-ezkero, garraiorik ezak umeak ikastolara juañ-eziña ekarri eban: umeak ez etortzeak, bide batez. ikastolak itxi bearra... eta onelan beste sailletan be.

Egunkarien azaltzaillerik geienak, langille -artean, norberak bere guraria azke ta lasai agertzeko aukera ez dabela izan, argi ta garbi diñue. Lendakaria be, ezkor agertu zan Telebistan lan-uzteari buruz bere iritzia emotean: "Atzo egun itun bat izan zan: lan-uzte orokor batek, gizakian zeozer txarto dabillega adierazten daun -ezkero". Oneik izan ziran bere itzak.

Laburki esan geinke lan-uzte orokorra ez dala ezertarako gauza izan. Lan-uztea baiño lenago, Madrid'eko Jaurlaritzak ekonomiar buruz berak iragarritako neurriak, aurrera eroango dauzala argi ta garbi esan eban; lan-uzte ondoren be, orixe tinko eutsi dau. Bestaldetik, langilleen nai ta iritzia, benetako azkatasunik eza ta indarkeria dala-ta, bear bezela ez dira agertu. illun xamar geratuz.

Ondo aztertu ezkeru, agian langilleak orain arte lortu dabezlan eskubideak, su ta gar, aldezte bearrezkoa dala uste dabe, ostantzean, itxuraz beintzat, atzera egitea izango litzakela-ta.

Izan be, mende onetako asieran inguru langulleen egoera gogora ekarten ba'dogu, eta gaurkoakin alkar jo edo parean ezarriko ba'gendu, dagon itzaleko ezbardintasuna ikusi al izango geunke.

.a-

Aldi atan buru-belarri lana egiten zan: sarri-askotan egun sentitik illun-nabarreraño. Geroago ezarri ziran ordu -arauak. lan-aldiaren epea eta beste baldintz ongarriak. Zortzi orduko lan-aldia eskuratzea garrantzietariko bat izan zan. Ondoren lortuko ziran igandeko atsedena. urteko opor-aldiak, gizarte-babesak eta abar.

Langilleak gaurko egoera lortzeko amaika nekaldi jasan bear izan dabez. Zuzenki edo zuzengabe, ugazaba ta beargiñak aurrez-aurre jarri ziran eta euren arteko iskanbilla, mailaen arteko burrukea izenaz ludi guztian sortu zan. Erri guztietako langilleak alkar ta nekearen nekez eta luzearen luze, zenbatu eziñezko zirriparra, espetxeratze, erbesteratze eta iltze ondoren, gaur dabezlan eskubideak eskuratu ebezan.

Beraz ez da arritzekoa, ain nekezka lortutako egoera, indar guztiakaz aldeztu izatea. Baiña baita uste dogu legeko dala esatea lan-arremanen araubideak egiten dirala, danentzako lana guraiña dagonean betetzeko. Ekonomizko larriune baten, bearrezkoa da legeak egokitzea arik eta beti bezalako egoerara eldu arte.

\*

Alemania'n olan jokatu dabe. Volkswagen Alkartea'ren langilleak, 30.000 lantoki eutsi al izateko, astean lau egunez egingo dabe lana datorren bi urteetan, % 10 sariak gitxituz.


Legeak gizonak egiten dabezlan ezkeru, ez dira akatsbakoak eta aldiberean bai gizaki bai sendiak, onegaitik edo argaitik, ez dira beti bardiñak izaten; sarritan batzuk besteak baiño beartsuagoak agertzen jakuz. Au dala-ata, lege ozkeriaren zuzentasuna ez da iñoiz betegarria izango. Zuzentasun utsa eltzen ez dan tokietaraiño, lagun-urkoarenganako goimaitasunaren sugarra eroan bear da.

Neure idaz-lanaren oizko dan neurria betetzeko dala-ta, ez neuke guru amaitu esan barik Eliza Katolikoa'k ba-duala bere "Giza-irakasbidea" auzi oneik erabakitzeke. "Rerum Novarum" deritxon Idazki edo Enziklika XIII Leon Aita Santua'k egifia (1891) eta "Centesimus Annus", II Juan Pablo, gaurko Aita Santua'k, ondiño aldi asko ez dala (1991) idatzitakoa, garrantzietarikoak doguz. Bitartean, beste bost Enziklika argitaratu izan dira. Or irakaspen ugari aurkitu leikez.

---

# GERNIKA'KO BATZARRAK ETA BIZKAI'KO JAUNA

---



## I. GERNIKA'KO BATZARRAK

### 1. Sarrera

Euskalerrian diran antxifiatik etorritako lurraldeak beti izan dabez izaera eta erakunde bardin batzuk. Orregaitik egin lei nasai Euskalerraren kondairari edo erakundeai buruz berba. Baiña orregaz batera, lurralde bakoitxak bere berezitasunak ditualako, ondo dago, baita, Bizkai'ko, Araba'ko, Gipuzkoa'ko edo Nafarroa'ko erakundeai buruz berba egitea be.

Zalantza barik esan geinke lurralde bakoitxean era berezi baten eskubideak sentitzeko erak dagozela eta almenaren naiz agintaritzaren aurrean egoera ezberdiñak daukezala. Zeatz esateko, Bizkaia'k antxiña-antxiñatik ziurtatu dau bere nortasun berezia eta berezitasun orren sustraia bere lurretik, kondairatik, eskubideak agertzeko eratik eta bertan bizi izan diranen izaeratik sortu da.

Bizkai'ko Jaunerriak bere ordezkoa zan erakunde bat bear izan eban beti, erria zaintzeko ta gobernatzeko, eta bere arazoak bideratzeko; Eleiz -Ateak, eta geroago uriak, batera jokatura Batzar Nagusi oso bat sortzera eldu ziran eta orrexei esaten jake Batzar Nagusiak. Batzar Nagusi oneik izango dira nire berbaldiaren lenengo zatiko gaia eta bigarren zatian Bizkai'ko Jaunak egiten ebana azalduko dogu.

### 2. Batzar Nagusien antxiñakotasuna eta kideko ziran erakundeak

Euskalerrian izan diran errigintzarako erakundeak sortzeari buruz daukaguzan jakingarriak Erdi-Aroa'ren lenengo aldietakoak dira (1): XI gizaldian Bizkaia'n sortuta egoan Jaunerriaren almena.

Batzar Nagusiak foru -aginpideko eskubide asko artu ebezan eta on lenengoz 1308n. urtean agertzen da agirietan, Aretxabalagana'n egindako batzar baten aitatzen diranean. Gero XV gizaldian oso-osoan zeaztuta agertzen dira.

Asieran Bizkaia izenak ez eukan beragan gaur daukon lur-zati osoa, gero lur-laua esango jakona baiño. Orduko Bizkaia Gipuzkoa'ren mugatik Nerbion ibaira

## AURKEZPENA

"Gernika'ko Batzarrak eta Bizkai'ko Jauna" da gaurko gaia, laugarren itzaldi onetan.

Gai emoillea Arrien'dar Gregorio pasiotarra.

Gure erriari bete-betean dagokion gaia da, eta ezpai-barik, irakaspén ederra guztiontzat.

Arrien Jauna Kondaira -jakintzan maisu nagusia da ete "Euskalerraren Kondaira" izeneko liburuaren egillea dogu, ikastola batzutan ikasgaitzat erabilten dana. Onezaz gaiñera, bera dogu milla ta seireun ikasle dituan "Lauaxeta" ikastolan euskal kondairaren irakasle.

Gitxi aurkituko dira, beraz, bera baizen egokiak gaurko gaiari buruz berba egiteko.

Eta au esanda, entzun dagiguzan bere esatekoak ardurarik andienaz.

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

artekoa zan. Lenengo jauneri on XIII gizaldian zabaldu zan, Durango-aldea ta Enkarterria sartu ziranean.

Lurralde bakoitxak, on jazo aurretik, barruko here erakundea eukan eta bertako Batzarrak ziran araubide. Enkaterrikoak, esaterako, Abellaneda'n batzen ziran, Durango-aldekoak, ostera, Gerediaga'n eta Astola'n. Eta lenengo aldietako Bizkai'koak, Aretxabalagana'n eta Idoibaltzaga'n asieran, eta geroago Gernika'ko zugazpean.

Uriak sortu-arte eta Durango-alde ta Enkarterriaren ordezkioak etorri-arte, antza dagoanez, Bizkai'ko Batzar Nagusira lenengo Jaunerriko ordezkariak baiño ez ziran etorten eta batzarrak lenengo ta bein zuzentasuna batera beteteko, Jaunari omena emoteko eta beronen ziña artzeko, legeak egiteko ta olakoetarako batzen ziran.

Jaunerriko Batzar Nagusiak egiteko lekuari buruz auxe esan bear da: XV gizalditik aurrera Batzarrak oituraz Gernika'n egiten zirala arik eta 1836'an kenduak izan arte. Gitxi batzuk egin ziran Bilbao Urian.

Batzarra egiten zan tokiari begiratu ezker, kondaira-zaleak iru gai bereizten dabez: Zugaitza eta ingurua, Andra Maria'ren Antxiñako Eleizea eta gaiso-etxea. Zin egiteko eleizea kontuan artzen ba'dogu, antxiña sortua dala eta Foru-aritzetik urrean egoala esan geinke. Sarritan egualdia txarra izaten zalako, batzarrera etorritako aldunak sarritan eleiz orren barrura sartu bear izaten eben eta ortik sortu zan batzarrak antxe egiteko oitorea.

Etxearen kondaira begiratu ezker, 1826n. urtean erabagi zan gaur daukagun batzar-etxea egitea eta urrengo urtean erabagi zan, baita, zin-eleizea oiñarritik, barriri egitea. Gaur ikusten diran eran, 1833n. urtean osotu ziran.

### 2.1. Eleizateak eta uriak

Lurralde laua, "El espacio donde se perpetua el sistema originario de administracion del Señorfo y se desenvuelve el sistema jurfdico autoctono" (2) berandu sortutako izen bat data dirudi, eta esan lei urien aurrez-aurre jarteko sortua dala.

Laur Laua'k here lurraldeetan zaingo-erakundeak sortu ebazan, merindadeak edo eskualdeak. XIV gizaldeen sei ziran eskualde edo merindade oneik: Busturi, Uribe, Arratia, Zornotza, Bedia ta Markiña. Euretako agintariak prestameruak, meriñoak eta foru-alkateak ziran eta merindade edo eskualde bakoitxak here Bazkuna eukan.

Eskualdeak berak be here barruan eleiz-ateak daukaz. Oneitan erritar guztiak ziran agintari eta eleizpee-

tan egiten dabe erri-batzarra. Tokiko agintari iraunkorak ziran "Fiel Regidor" edo "Piela" eta Cabo de Milicias eta oneik zeregin asko beteten eben.

Jaunerriko agintaritza arauzkoaren menpean egoan lurraldearen aurrez, uriak agertu ziran. Oneik garrantzi aundia izango eben ekonomi-erakundeak, gizarte-bidekoak eta errigintzakoak Euskalerrian aldatzeko. 21 ziran uriak eta uri nagusi bakarrak aginte-giroan ugartearen antzekoak dira eta Lur Laua'ren, Enkarterriaren eta Durango-aldearen barruan dagoz.

Bizkai ko uriak, Jaunak eta Logroño ko Forua bide data sortuak dira eta erri-eskubideen arloan Bizkaitarren eskubideak eta berezitasunak daukez: Gernika'ko Batzar Nagusietara joan leitekez, leiñargitasuna dauke, korrexidorearen menpean dagoz...

Bahia laster sortu zan burrukea, baserri-girokoak ziran eleiz-ateen eta Urigintza-girokoak ziran urien artean. Alkarren aurka izate au sarritan agertzen da kondairaren joanean eta izakera bi oneik ondo alkar-teea gaitxa zala laster ikusi zan. Txintxilla'ren Araubidea (1487), sortu baiño lenago, uri guztiak joaten ziran Batzar Nagusietara eta errigintzako goi-erakundeak sortzean kideko izaten ziran. Aurreko erakunde orrek debekatu egin eutsen uriai batzarretara joatea, batzarretara Lur-Lau'koak baiño ez ziran joango. Orrelan jauneri zati bi egin zan eta ortik etorri zan alkarren aurka jokatzeko sasoi. Monreal'ek diñoan lez,

### **Liquidacion**

de lucha de bandos, pero, al mismo tiempo, ayudó a que se agudizaran otros problemas que estaban latentes" (3).

Eleiz-Ateen eta Urien artean artu-emonak ain urdu-riak ziralako, uriak errigintzako alkarte barria sortu eben, Jaunerrikan kanpoan; erakunde bien alkartasuna 1630'ean egin zan, Alkartasuna edo "Concordia" eritxona bide zala, eta ordutik aurrera eskubide eta erri-aurreko egoera al zan neurrian bardiña zan urientzat eta eleiz-ateentzat, Jaunerriko jaurketaren ardatzean ziran erakunde guztietan.

Alkartasuna egin ondoren, Uriak eta Eleiz-Ateak kideko biziak ziran Batzar Nagusietan, baiña indarra eta ordezkarien zenbakia ziranak ziralako, izan ziran alkarren aurkako jokoak. Urien ordezkariak eukan astuntasuna ez zan aundia, -101'etik 21 ordezkari. Uri bakoitxari aldun bat egokion eta batera begiratu ezker galtzen eta asko galtzen urten eben (4).

Urrengo lauki onek lagundu leike arazoa argitzeko eta orain darabilgun egoera berezitzeko.



	Aldunak/ Autarkiak	Biztanleen %
Lur Lauan	72	46%
Urietan eta Uri nagusian	21	31%
Durango'ko eskualdean	2	6%
Enkarterriko errietan	5	8%
Enkarterriko erri alkartu-eza	2	9%
<b>Guztiz</b>	<b>101</b>	<b>100%</b>

Bilbao'ren kasuan agertzen zan on argiago. XVIII gizaldiaren asieran Jaunerriko biztanletzaren % 10 egoan Bilbao'n eta Gernika'ko batzarretan ordezkari bat eukiteagaz isillik egon bear eban. Orren ondoren esaten dan lez, ordezkari gitxi eukitearen orde zerbait lortu eban Bilbao'k, Bizkai'ko errigintzan indarra eukiteko beste bide batzuk aurkitu ebazan: Bilbao'n eukan bizilekua Korrexidorak eta onen epaimaiak.

### 3. Aldunak edo batzarkideak: Izkuntza jakin-bearra

Foruen arauz deia egiten zanean, erriak euren ordezkariak bialtzen ebezan Batzar Nagusietara eta eskubide osoa eukan erri bakotxaren ordezkari lez jokatzeko.

Batzarrak noizik noizera egiten ziran jakiteko, ez dago arau ziurrik. Oiturea zan lau illebeterik bein batzea, baiña ez zan beteten. Legezarraren azken-aldian urte birik bein egiten zan batzarra eta orrelan batera izaten ziran Batzarretan aukeratutako arduradunak barrizatzeagaz.

Alduna edo batzarkidea izateko baldintza batzuk bear ziran, esaterako 25 urte eginda, jaiotzaz edo jatorriz Bizkaikoak izan eta abar. XIX gizaldira ondo sartuta egon-arte "solamente tenian cabida las autoridades del Señorío y los apoderados, y no se permitia la asistencia de los títulos nobiliarios, mujeres, sacerdotes y militares; después fue admitida la presencia del



Jakintza-arloa kontuan artu ezkerro, ez da aitzu bear 1614'ko abenduaren 10'eko Batzar Nagusian auxe esan zala: "Para que ninguno que no supiera leer ni escribir pueda tener Poder a la Junta ni ser Regidor o Fiel del Señorío. Primeramente, se propuso en la dicha Junta General y se decretó de aquí en adelante que el que no supiera leer ni escribir en romance (el castellano) no pueda ser admitido en la dicha Junta ni aunque sea con Poder de sus Anteiglesias para las elecciones de los Oficiales del dicho Señorío. Ni tampoco puedan ser electos ni nombrados por tales Oficiales los que no supieran leer ni escribir para que mejor se gobierne la

república del dicho Señorío y que lo susodicho se guarde de aquí en adelante inviolablemente perpetuamente... .

Jakintza-arloko baldintza onek arazo bat baifio geiago sortu eban Batzarretan eta iñoz baldintza on beteten ez ebenak kanpora atera be egin ebezan. Orrelan, esaterako, 1624'ko epaillaren 19'an ez ziran artu erri oneitako aldunak: Arrieta, Izpazter, Sondica, Lejona, Berango, Lemoniz, Laukiniz, Bakio, Castillo-Elejabeitia eta Ubidea. Antza dagoanez "no se hallaban con la suficiencia necesaria en leer y escribir en lengua castellana". Batzar beratan auzi-bidea artu zan Laukiniz'ko aldunaren aurka, bigarrenez be etorri zalako (6).

XVIII gizaldian jakintza-arloko norkeri au eta gogorkeri au bigundu eta itzultzaileak ezarri ziran gairik aundienak euskeratzeko. XIX gizaldian erabagi batzuk, Korrexidorearen berbaldi batzuk eta olakoak eta Batzar Nagusietako zati batzuk beintzat, euskeratu egin ziran, baiña dana araurik artu barik. Azkenengo gizaldi onetan, zeozelan beintzat, euskerea legez onartua izan zan eta euskeratzaile bat, izendatu eben, legez, batzar-agiriak euskeratzeko... 1854n. urteko araudian auxe ebatzi zan: "diesen principio con la lectura de expedientes y documentos en el idioma castellano y se continuará con el vascongado, **ambos idiomas**".

### 4. Batzar Nagusien eskubideak

Asi gaitazan orain Bizkai'ko Batzar Nagusien eskubideak eta almenak zeintzuk ziran ikusten. Oneixek aitatu geinkez: Legegintza, auzitegia, zaingoa, jaurketa, errigintza, ekonomia eta gudaritza.

Zeregiñik aundiena ta ezagunena legegintza zan; ez dogu aitzu bear euskal-lurraldeetako Batzarrak eta erregeen korteak mailla bardin-antzeko erakundeak zirala, baita parlamentuen edo Erdi-Aroko laterrimailen antzekoak be.

Bizkai'ko Batzar Nagusiak Jaunerriko legedi guztiak egiten, izan eban esku-artzea, garrantzi aundikoa izan zan. Orrelan sortu zan oiturazko eskubideen moltsoa edo aldakuntzea eta 1452'ko Foru Zarrari bizia emon jakon (7) eta 1526'ko Foru Barriari be bal.

Batzar Nagusiak ba-euken, baita, almen aundi-aundi bat, mailla askotako erabagiakaz lurralde osoko bizi-modua bideratzeko (erakunde bera ta auzibidea, erri-aurreko egokitasuna ta babesa, ekonomi eta salerosketar-arloko ekintzak...)

Epaillarien zeregiñak kontuan artzen ba'doguz, Batzarren egitekoa da, oiñarria zan legedia betetzeari begiratzea; eskubide-inguruan agertzen ziran arazoak

bideratzen ebezan, eta Jaunak Batzarretarik kanpoan legeak emoten ebazanean, lege orreik foru -baimena eta erabilgarri izatea artu bear izaten eben eta orrelan izaten ziran baliokoak.

Batzarrak ba-euken baita Jaunerria jaurtzeko ta zaintzeko bear ziran zeregiñak bete-bearra be: Alkateak, merinoak eta legezko agintariak eurak izendatzen ebezan. Errietatik etorten ziran eskari guztiai bidea emoten jaken eta artu bear ebezan erabagiak artzen ebezan zaingoaren arlo guztietarako: bideak, mendiak, lantegiak, astuntasun -neurriak eta beste neurri guztiak...

Errigintza edo politika-arloko zeregiña geien agertzen zan Erregeak izendatzen eban Korrexidorea artu bear zanean. Onek Forua zaintzeko ziña egin bear izaten eban. Batzarrak sarritan eskua artzen eban arazotan, esaterako Bizkai'ko Uriak sortu bear ziranean...

Azkenez, Batzarrak beteten ebazan ekonomi ta gudarostearen arazoak aitatu bear dira.

Jakiña da Sartaldeko Euskalerrriak zerga -arazoan buru-jabetza ia osoa izan ebalta eta Erregeak ez eukala almenik ezelako zergarik ezarteko. Erregearen Dirutza estutasun aundian aurkitzen zanean, Batzarren dirutzatik emoitza eskatzen eban eta oneik erabagi bear izaten eben emon ala ez. Dirutza on ordaintzeko furupeko agintariak fogeraren artean ordaiña banatzea erabagiten eben. "Este elemental sistema hacendistico se simplificaba todavía más por el hecho de que los pagos urgentes eran a veces adelantados por los propios diputados, o por algún notable del territorio que luego se al hacerse efectivo el repartimiento fogueral. El sistema no requería otro funcionario que un tesorero o depositario que era designado cada año por las Juntas.

El establecimiento de algunos arbitrios permanentes modificó al final de la etapa focal la simplicidad fiscal descrita, dando lugar a la aparición de una hacendística mas complicada" (8).

Gudaritza-arloan, "gudaritzatik aske izatea" egoan: Foru zarrak auxe gogoratzen dau: Bizkai'tarrak ez egozala beartuta gudaritza betetera Luiando'n egoan zugatz maillatutik aurrera.

Erregeak gudak edo arerioen erasoak eukazanean, audari-taldea eskatzen eban eta lurralde bakoitzak eukan ardurea gudariak jazteko eta eurai izkilluak emoteko. erregeak eskatzen ebalako. Batzarrak erabagiten eben baietza emon ala ez, eta orretarako bidea, diruaren eskariarena bera izaten zan.

Izatez, arrisku-aldiak ziranean, Aldundiak eurak arduratzen ziran mugak zaintzeko bear ziran beste gudari batzeko. Olakoetan errietako soldaduak izaten ziran, itxasotik naiz legorretik etorren arerioagandik lurraldea zaintzeko. "A los efectos de la defensa de

las fortalezas de la costa, los pueblos del interior tenían señalados unos puestos, a los que debían acudir cuando la Diputación les convocaba. El sistema no funcionó tan mal, ya que no se recuerdan desembarcos con éxito de ingleses, franceses u holandeses a lo largo de la Edad Moderna" (9).

### 5. Jaurketarako beste erakunde batzuk eta legebideko arduradunak

Lenengo aldian Jaunerrian Batzar Nagusiak izan ziran bere zeregiña beteten eban erakunde bakarra, baiña urteen joanean eta zaingoa korapillotsuagoa zalako, jaurketarako beste erakunde batzuk sortu ziran. Oneik arduratzen ziran Batzar Nagusietan artutako erabagiak osotzeko ta beteazoteko. Bide orretatik sortu zan Jaurbide-Nagusia eta, geroago, Jaurbide Berezia. Oneitatik lenengoa, benetako aginpide eragillea zan eta 1500n. urtean sortu eben, batzarrak ain sarritan eginbearrik izan ez daiten. Amabi jaurle ziran, Batzar Nagusiak izendatuak, eta Korrexidorea eben buru, arduradun batzuk laguntzaille (lege-gizon bi, eskribau bi eta sindiko bi). Emeretzi gizon oneik urte -barruan iru batzar egin bear ebezan.

Jaurbide Berezia, here aldetik, 1570n. urte inguruan sortu zan eta Jaurbide Orokorren ordezkoko lana egiten eben; orretarako korrexidoreari emon jako eskubidea, Bilbao'n bizi ziran aldunak eta jaurleak artu egiezan Jaurbide Orrikarraren eskubideak.

1645n. urtean Jaurbide Bereziak here izena aldatu eban eta arrezkero Aldundi Orokorra dau izen. Erakunde onek, apurka -apurka, garrantzia artuko dau eta 1965n. urteko Batzar Nagusian beronen eskubideak ondo zeaztuta geratu ziran aldundia zazpi kidekok osotzen eben (6 aldun Nagusi eta Korrexidorea). Auxe izango da urteen joanean jaurketarako erakunderik aundiena.

Aldundiak batzarretarako deituta, gudarosteko buruak eta arduradunak izendatzen ebazan, berak eratzen eban gudarostea, berak batzen ebazan zergak eta errentak eta here ardurea zan erri-arte bideak zaintzea eta beste olako zeregin batzuk beteten ebazan. Batzar Nagusietan izendatzen ziran aldun nagusiak urte birako, eta aldi on amaitzen ebanean azterketea egiten zan.

Legebideko arduradunen artean, esandako aldunak aide batera itzita, oneik dira izendatu -bearrekoak: Eskualdearen gurasoak, eritxi-emoilleak, sindikoak, jaurleak, idazkariak, diruzaiñak eta abar. Bakarreko arduradunen artean sindikoa da nagusi: Batzar Nagusietan izendatzen zan, Bizkai'ko Forua babestea ta zaintzea here zeregiña zan, beronek emon bear eban foru-bai-

mena edo debekua foruaren aurka izan ezkerero, Aldundiak erabagi bat artzen ebanean (10).

Erdi-Aroaren joanean artu eban Bizkaia k Jaunerriaren bidea eta Iñigo Lopez Ezkerra (1040-1077) izan zan lenengo konde edo jaun ziurra (11). Aldi onetan, Gaztela-aldean ebillan ber-eskuratzearen giroa zalata, jazoera eta lur-arazoa bereziak egozalako, Bizkaia arata ona ibilli zan Gaztela'ko ta Naparroa'ko erregeen artean.

Iñigo Lopez, agirietan irakurri al dogunetik, jaunen zerrenda egin ezkerero (12), urte batzutan Naparroa'ko erregeagaz bat eginda bizi izan zan; gauza ziurra da Bizkai-barrua Naparroagaz bat eginda egon zala IV Santxo Garces en aldira arte. Aldi onetan Peñalen'en asi zan naparroa'ko erregeen indar-galtzea eta orduan Bizkaia'k Gaztelako erregeagaz bat egin eban 1076 urtera arte. Baiña aldaketa oneik ez eben ezer aldatu Bizkai'ko Jaunaren edo Kondearen izaerea.

XII gizaldian Jaunerriak baten baiño geiagotan aldatu eban bere politika-alkartasun ori, geienetan Naparroagaz bat eginda egon zan eta urte labur batzuk igaro ebazan Gaztelakoagaz bat eginda.

XI gizaldiaren erdi-ingurutik almena edo jauntza iru gizalditan egon zan Lopez de Haro sendiaren eskuetan. aldi labur bat izan ezik. Aldi onetan Ladron sendiak izan eban here esku jauntza.

Ladron'darrak eta Haro'tarrak sendi indartsuak ziran, batez be Haro'tarrak jabetza aundiak eukezan Gaztela-barruan eta orregaitik almen aundia izango eben erregearen inguruan eta iñoz izan ziran erregearen urrengo sendia.

Bizkai'ko Jaunak jokatu eban lez jokatu ebalako, Bizkai-barruaren lurraldea zabalagoa biurtu zan. Jaunen jokabidean beti jazoten ziran olako gauzak: Gudarostearen buru izatea, zerga batzuk artzea, erri-aurreko langille batzuk izendatzea, epaiketarako eskubidea eta legegintzarako almen naikoa aundia.

XIV gizaldian amaitu zan Haro'ko sendian gizonezkoen azkazia eta, ezkontzaren bidez, jauntza Lara tarrren eskuetara jausi zan. Sendi au entzute aundikoa zan gaztelatarren artean. Azkenengo jaunaren lekuko andrea zan Juana Manuel'ek 1370n. urtean, Juan here semearen eskuetan itzi eban jauntza eta au, bederatzi urte geroago, Gaztela ko errege koroatua izan zan, I. Juan izena ebalu. Orrelan jausi zan here eskuetara, erregetzagaz batera, Bizkai'ko Nagusitza. Bizkai'ko jauntza iraunkortasunez bat eginda geratu zan Gaztela'ko Erregetzagaz 1379'an.

Monreal'ek diñoskunez, eta onek ondo aztertu dauz alkartze onen berezitasunak, on ez zan Jauntza gaztelartutea, baiña bai jauntzaren aldia amaitzea. Jauntzak eta erregetzak bat egiteak ez eban ekarri ezelako oiñarri-aldatzerik Bizkaian egoan jokabideari eta araubideari hegira. Ez zan politika-arazoa, zaingo arazo utsa zan. "Se advierte el propósito de Don Juan de conservar el carácter del Señorío, sin fundirlo en el realengo ordinario, cuando desde 1379 empieza a incluir entre sus titulaciones (Rey de Castilla, León, etc.) la de Señor de Vizcaya. Por otro lado, en la sucesión de reyes senores se guardarán las mismas formalidades que se observaban en la del noble-señor. Todo hace pensar que, en la tenencia y en el ejercicio del poder, formalmente al menos, se tiende a mantener la distinción entre el nivel real y señorial, que ahora corresponden al mismo titular.

Por otra parte, el cuadro institucional vigente en el territorio subsiste en toda su integridad, lo mismo en lo que se refiere a los oficiales del señor prestamero, merinos, alcaldes de fueros y sayones (con la excepción del corregidor, que aparece pocos años después de la incorporación) —como a los órganos representativos de la comunidad— Juntas Generales y Juntas de Merindad" (13).

## 6. Korrexidorea, Bizkai'ko Jaunaren ordezkoa

Bizkaia'n Erregearen Ordezkoa Korrexidorea zan eta onen eskubideak almenak eta berezitasunak aundiak ziran. Erregeak izendatzen eban, Bizkai'ko Foruaren I Atalean 2n. zatian agertzen dan lez: "Todas las justicias de dicho Condado y Señorfo de Vizcaya y Encartaciones y Duranguesado, sean y hayan de ser de sus Altezas como de Rey Señor de Vizcaya. Y que asf Corregidor y Veedor y Prestamero y Alcaldes y Merinos se han de poner por su Alteza, y no por algún otro".

Bizkai'ko Korrexidore izateko Letradun gizona, jakituna ta baimenduna izan bear zan. Berba baten esateko, izen oneko gizona eta Bizkai'ra etorri baiño lenago beste ardura eta ekintza garrantzitsu batzutan ondo aztertua.

Bere beste berezitasun bat kanpokora izatea zan "del Ebro para abajo jaiola eta ezin ziran korre+idore izan, jaiotzaz edo erriz lana egin bear eben errikoak ziranak.

Bizkaia n ezagutu zan lenengo korreridorea Balladolid'tarra izan zan, Gonzako Moro. 1379n. urtean izendatu eban Gaztela'ko Erregea ta Bizkai'ko Jauna zan Juan I'ak. Gomutagarria zalako eta esker onez, Gerni-

ka'ko Zin-Eleizan, altarearen inguruan illobiratu eben. Ez dau arrezkero beste korrexidore batek sekula olako omenik izan.

Korrexidorearen zeregiñak ain korapillotsuak zirala-ko, ez da arritzeko bere jokabidea sarritan baterakoa ta besterakoa lez agertzea. Ori obeto azaltzeko kondaira-zaleak ikuspegi bi eukazala agertzen dabe: Alde batetik Erregearen aginduen bete-eragillea zan eta beste aide batetik Jaunerriko Jaurleen artekoa erregeari zin eginda jaurleen eginbearrak eta foruak bete bear ebazan. Oñar-rrizko zin bi egiten ebezan ba, korrexidoreak, bata Erregearen Kontzeilluaren aurrean -Balladolid- eko errege-etxean egiten zan- eta bestea Gernika'n.

Ekanduak eta oiturak orrelan ziralak, Korrexidore-ak lau illebetegintza egin bear ebazan Bilbao, Bermeo ta Durango urietan, here bizi-izatea astun biurtu ez daiten toki baten, baiña egotez beti Bilbao'n egoten ziran, berau zalako Jaunerriko uririk altsuena ta biztanletsue-na.

Korrexidorearen eskubideai begiratu ezker, labur-labur auxe esan daikegu:

Gernika'ko Batzarretan, Gudarostean eta Aldundian Mai-Buru izan, abotsa eta autarkia ekazala. Batzarretan berak zuzentzen ebazan eztabaidak eta auteskundeak bideratu, aldunen agiriak aztertu.

Epaiak egiteko eskubidean esku-artze aundia eukan, epaiketa-eskubidea ia dana here esku egoala. Erritarren arteko auzi guztietan beragana joaten ziran gora-deiak, errementarietako alkateen epaiak izan ezik. Onein gora-deiak urrengo errementarietako alkatearen eskubidea ziran.

Beste eskubide aundi batzuk be ba-eukazan, esatera-ko errietako kontuak aztertzea, Durango eskualdekoak izan ezik.

Janariak eta salgaiak banatzean kideko zan, baita erri-aurreko etxegintza-lanetan, lantegi-arazoetan eta lurgintza ta mendietako arloetan be. Julio Ortega Galindo'k diñoanez, eta oneri jarraitzen dautsat gai onetan, ez dauko Korrexidoreak zeregin aundiagorik, barri-emotea baiño: "El Real Consejo pide informes continuos sobre los problemas concretos; exige que le tenga informado de cuanto ocurra en el Corregimiento, y toda Ordenanza o regla general obligatoria, que deba ser ratificada por el Real Consejo, debe ir acompañada del informe correspondiente. Es el arma decisiva del Corregidor..." (14).

### 7. Ziña ta Foru-baimena

Guztien laguntzaz sortu ziran erakunde guztiak, batek orrelan nai daualako galdu ez daietezan, naiz ta

bat on Erregea izan, Bizkaia'k bide haliotsu bi artu ebazan: Ziña ta Foru-baimena.

Arlo onetan Foruaren lenengo legeak auxe iñoan: Bizkaia'ko Jaunak berak etorri bear ebala Bizkaia'ra zin egin eta "confirmar sus privilegios é costumbres franquizas é libertades". Eta geiago iñoan: "si non viniere, que los vizcafnos, asi de las villas como de la tierra liana, como de las Encartaciones con el pedido al dicho Señor de Vizcaya... ni obedecer sus cartas fasta aquel tiempo que venga para facer la dicha jura".

Ez doguz emen aitatu bearko Jaunerriko Foruak ziña egiteko Gernika'ra etorri nai izan eben errege guz-tien izenak. Kasu bi bai aitatu doguz: I Juan'ek foruak zin egin ebazan 1371n. urteko abenduaren 12'an eta VII Karlos foruak zin egin eta 1875n. urteko uztai-llaren 30'ean izan zan Bizkaia'ko Jaun aldarrikatua.

Almena eukanaren aldetik legeak aintzat artzeko ziurtasuna izan daiten ziña naikoa ez ba'zan, orduan almen on ondo zaindu bear zan, ondo begiratu bear jakon, foru-baimena bide zala: Araubide au argi ager-tzen zan Foruetan, naizta baimen izena bera agertu ez eskubideak zaintzeko dan agiri orretan. Orren lekuan beste esaldi au agertzen da: "Obedézcase, pero no se cumpla". Foru barriak onelan diño 11n. legean, 1º ata-lean: "Que las cartas contra la libertad sean obedecidas y no cumplidas". "Otros dijeron que habfan por Fuero y Ley y franquiza y libertad, que cualquiera carta o provision Real que el dicho Señor de Vizcaya diere o man-dare dar o proveer, que sea o ser pueda contra las Leyes y Fueros de Vizcaya, directa o indirecta, que sea obede-cida y no cumplida".

Jakiña da Foru-baimen orrek here indarra izan ebala foru-aldiaren joanean eta ortik urduritasun eta burruka aundiak sortu zirala.

Batzar Euskaldunak, eta euren lekuan Euskal-Aldundiak, ondo beteten eben "esana egin baiña agin-dua ez bete". Foruaren aurka egoan edozein agindu bete barik geratzen zan Foru-Baimenaren indarrez, eta gero Erregearen aurrera joaten ziran, foruaren aur-ka egoan agindu on kentzeko edo atzeratzeko eska-tzen.

Bizkaia'n, len esan dogun lez, sindikoaren zeregiña zan lurralde au baiño aragotik etozan aginduai eta egi-tekoai foru-baimena emon naiz ukatu egitea. "Sin embargo, en 1714 habrá un intento borbónico para trasladar la facultad de otorgar el uso al delegado del poder central en el Señorfo, es decir, al corregidor. En efecto, por Orden real de primeros de diciembre de aquel año se mandó que fuese privativa de los corri-dores la acción de conceder o negar el uso a las y despachos reales, guardando el método de dar antes traslado de ellos a uno de los sindicos del Señorfo a fin

de que, dentro del término señalado, manifestase si se oponfa o no su cumplimiento a los fueros del Señorfo. En vista de ello el corregidor deliberaba lo que "discurriese de justicia y fuero", reservando al sfndico la apelación. Los diputados, en sesión de 21 de diciembre de 1714, consintieron que fuese el corregidor quien a partir de entonces diese o negase el pase.

Pero esta actitud un tanto impremeditada de los diputados serfa enmendada por la Junta general de febrero del año siguiente" (15).

Ondo diño Rikardo Gomez Rivero'k, Batzarrak uste izan ebalakorregidoreari eskubide on emotea beti egin danaren aurka dagoala eta orregaitik erabagi eban biurtzeko "al método anterior que consistfa en que todos los documentos sometidos al corregidor y demás "justicias" del Señorfo, antes de cumplirse se entregasen a uno de los sfndicos generales para que diera su sentir extrajudicialmente" (16).

Korregidoreari Foru-baimenaren eskubidea emoteko ardatzeko agintariatetik etorren alegin au, barriro agertuko da XVIII gizaldian.

Sindikoa artzen eban erabagia Jaurketa Nagusiari eskintzen jakon eta onek emoten edo ukatzen eban bere eritxietara eskintzen zan dokumentuaren Foru-Baimena. Eta Jaurketa Nagusia Batzarrean ez ba egoan, zeregin on Aldundi Nagusiak beteten eban.

## 8. Gizarte-iztilluak Foru-Aldiaren sasoian

Aro Barrian edo "modernoan" Bizkaia'n gizarte-iztillu batzuk izan ziran eta euren artean aundienak "Gatzaren Matxinada" (1630-34), Matxinada (1718) eta Zamakolada (1804) izan ziran.

Iztillu onein berezitasunik berezienak oneik izan ziran: Toki baten sortu ziralako, nerbioi-ibarraren inguruan; guztiak sortu ziralako, sarritan foruaren aurkako joko-antzerako, Jaunerrian ardatzeko agintariak bear ez dan eraz sartu ziralako. Foru-arazo oneik kanpoko agintarien aurka erantzuteko asi ziran, gero barruko iztillu lez, Bizkaiko gizarte taldeetan zatitzea lortzeko.

Arlo onetan larregi ezin geintekenez luzatu, azaldu dagigun emen gatzaren zergak sortu eban erantzun gogorra. Iztillu orrek garraztu eban Austria Errege-Etxeagaz izan zan alkar ondo ulertzea. Iztillu onen izena, arazo sortu eban iturritik dator: Gatzaren zergegaitik eta beronen salneurriagaitik sortu zan erantzuna izan zalako.

Larri-une au aldi aretako giroaren barruan egoan, XVII gizaldian ekonomi-egoera larria zalako sortu zan. Une aretan Gaztela'ko Erregea larri ebillan bere

ordainketak egiteko eta orregaitik nai izan eban len ordaintzen ez ebezan lurraldeak be orain zergak ordaintzea.

Errege-Kontzeilluaren erabagia izan zan, jaunerriko gatzagatan egoan gatzak dana baitu eta salgai ipiñi eta erregearen gaitegi, aterpe eta dendetara eroatea. Banakakoak euren eskuetan euren gatzak be eroan bear zan. Orduan Korregidore zan Lopez Morales'ek gatzak baitu nai izan eban, naizta sindikoa argi agertu on Foruen aurkako jokoak zala, salerosketarako askatasunaren eta zergarik-ezaren aurka egoalako.

Foru-arazo egunerik egunera larriagoa zan eta matxinada orrek ler egin eban garraztasunik aundienaz 1631'ko iraillean. Jazokizunik aundienak urte aretan Gernika'n egin zan Batzar Nagusia izan ziran. An agertu ziran erritar asko egokitasun barik, batzarkideak be ez ziralako, eta Foruen askatasuna gogoratu eban eta euren eskaria zan, errege-agindu orreri esana egin bear jakola, baiña ez bete. Jenteak "Gritaba que era menester que se hablase en vascongado para que todos entendiesen lo que se dijera, que no debfan ser diputados los que vistiesen calzas negras, esto es, los que se sustentaban como caballeros, sino personas sencillas".

Erri-eragin onen ondoren, erregearen aurrean bide batzuk artu ziran, errege-agindu on bete bearra kentzeko. 1632'ko urrillan, erria, bere Jaunagaz samaraiño egoalako, alegin guztiak alperrekoak ziralako ikusten ebalako, bide gogorragoak artu ebazan eta urien jabe egin nai izan eban, jente aundiari eta aberatsari bildurra sartzeko. Bilbao izan zan matxinada orren buru eta un onetan mailla askotako erritarrak batu ziran: Itxasgizonak, narru-langilleak, bizargiñak, jozkilleak, baserritarrak... Matxin-zaleak laster ekin eban altsuen eta aundien aurka, kaleak artu ebezan, Jaunerriko Jaurketan egozanan etxeetara sartu ziran, gizonen bat il be bai eta antzeko beste jazoera batzuk be izan ziran. Euren eskariak Bilbao'ko Udal-Batzaren aurreran be agertu ebezan.

Matxin-zaleak zuzen joan ziran Foruaren aurkako joko orreri baietza emon eutsoen bertako agintarien aurka. Matxin-aldi on laster biurtu zan gizarte-mailla ezberdiñen arteko burruka.

Iztillu onen beste une bat 1633'ko otsaillean Batzar nagusia izan zan. Orduan jentetza aundia (bi milla inguru ei ziran baserritarrak eta itxasgizonak, lantzak eskuetan ebezala) batzar-lekura joan ziran eta ez eban itzi batzarra egiten.

Matxinada onen azkena, zapalkuntza aundi bat izan zan. 1634'ko orrillaren 24'an asita, buru egiten eban sei gizon izan ziran baituak eta epaiketarik laburrena egin ondoren, il egin ebezan. Ilketa orregaz amaitu ziran gogorkerizko ekiñaldiak. Urte beratan, 1634'an, erre-

geak parkamena emon eban matxinadan kideko izan ziranentzat eta batera gatzaren zergari buruzko agindua atzeratu egin zan eta jaunerria gatzaren zerga orretatik aske aurkitu zan, lengo bideai bardin jarraituz.

## 8.1. Erri-Foruak kentzea

Bein baiño sarriago aitatu bear izan dogu, Borbon'darrak España'n agintzen asi ziranetik zelako ekintza sendoak egin ziran foruen aurka. Baiña Borbon'darrak dana ardatzera erooten zaleak izan arren, eskualde euskaldunai buruz beste au be esan leiteke: XIX gizaldia asi ebela, kondairaz eukezan eskubideak osorik zaintzen ebezala: "Los Fueros se mantuvieron hasta 1833, aunque con problemas derivados casi siempre de la penuria económica del Estado, salvo durante dos paréntesis constitucionales de los años 1812-1814 y 1820-1823. Ambas experiencias de asimilación al régimen común provocaron, tanto a nivel de grandes sectores de la población vasca como de las autoridades locales que controlaban el poder, una toma de conciencia sobre la vinculación entre autonomfa foral y pervivencia del absolutismo monarquico (17).

Ardatzeko agintarien eta Jaunerriaren arteko artu emonak egoera larrian egozan eta larritasun on aundiago biurtu zan 1939'tik aurrera. urte orretan agertu zan azillaren 16'ko Errerge-agindua, Foruen legea sendotzeko, baiña guztiak sendotu barik.

Azkenean, berrogei urtean il-zorian egon ondoren, foruak kendu egin ziran azkenengo ondakiñak be garbitu arte, 1876'ko uztaillaren 21'eko legearen indarrez. Lege barri onetan 1939'ko urrillaren 25'eko legearen 1º ataltxua beteten zan. Ataltxu arek auxe iñoan: "Se confirman los Fueros de las provincias Vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la

Canovas del Castillo'k lege on era berezi baten ulertu eban, ez aurreko gobernuak ulertzen eban eran, eta bere eritxia zan Laterrri-Gegearen batasunak Jaunerria ta España'ko beste erkiak bardintzea eskatzen ebala.

Orrelan, erri-maillako foruak kenduta, ekonomi-ituden aldia sortu zan; azkenez, XX gizaldian, araudien aldia etorn jaku.

ARRIEN'tar Gregorio'k  
(Euskeratu: Euskerazaleak)

## OARRAK

- (1) Ez dakigu ziurtasun osoagaz Jaunerriko Batzar Nagusiak egiten noz asi ziran. Baiña kondaira -zeleak batera datoz asierea 1053n. urtea baiño lenago izan zala esatean. Izan be urte orretako agiri batek auxe diño: "in presentia omnium seniorum de Vizcaya". Bigarren agiria 1075n. urtekoa da, baiña jarraian esan bearra dago, aipamen biak ez dirala nai genduken bestean zeatzak.
- (2) Monreal Gregorio'k: Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII). Bilbao, 1974, 143 or.
- (3) Bertan 96 or.
- (4) Ordezkarriak aurkezteak egokitasunik ez izateak zerikusí aundia izan eban uriak Batzarraren aurrean izan eban egoeran. Guztiak alkartuta jokatu, Lur Lauaren aurka egiten eban XVI gizaldiaren azkenean eta XVII'aren asieran: "Cuando los conflictos llegan a su fase más aguda, teniendo en cuenta la preeminente posición institucional de la Junta, el defecto de representación aludido cobrará la mayor importancia. El resto de Vizcaya utilizará a la Junta para obstruir cualquier iniciativa que Bilbao quiera sacar adelante y para llevar, en ocasiones, una política de Señorío contraria a los intereses de los estamentos dirigentes de Bilbao" (Monreal, G.: Las instituciones del Señorío de Vizcaya. Bilbao, 1974, 339 or.).
- (5) Sesmero, Francisco: La Casa de Juntas de Guernika. Colección Temas Vizcainos. Bilbao, 1975, 51 or.
- (6) Izkuntza arazoakaitik kanpora bota ebezan aldunen barriak osotzeko ikusi leike sarritan aitatu dogun G. Monreal'en liburu au: Instituciones públicas del Señorío de Vizcaya. Bilbao, 1974, 346-348 or.
- (7) Forua oituren ondorena da eta oituren moltzoa be bai. 1452n. urteko Forua, eskubide-arloko araudi osoa da eta 219 atal eukazan, eta askotariko lege-bideak: erri-aurreko eskubideak, erriarren artekoak, epaibidekoak eta zigor-bidekoak. 1526n. urteko Forua, bere aldetik, lengoaren aldaketa eta eguneratzea da, eta indardun izango da oso-osoa, foruak foru diran aldi guztian.
- (8) Monreal, G. Las Instituciones vascas en "Cultura Vasca". Erein, 1977, 376-377 or.
- (9) Bertan 377 or.
- (10) En R.G. de 19-IX-1720: "Dieron sus señorías poder a los Síndicos Generales y a cualquiera de ellas in solidum para que puedan seguir qualesquiera pleitos que este Señorío tubiere pendientes con qualesquiera personas, asi particulares como comunidades, como los que en adelante se moviesen con facultad de que puedan poner demandas, contestarlas y hacer todas las demás diligencias que conbengan y sean necesarias en las referidas causas y de que puedan seguir las en todos los Tribunales y Chancillerias que el poder que para ello necesitasen las daban y dieran sus Señorías sin limitaciones y con libre, franca y general administra-

ción y revelación de costas y con cláusulas de sustituir en unas o más personas" (LD. 24, 9 V.º-10 Rº).

- (11) Ez dakigu Bizkaia Jaunerria erakunde lez noz sortu zan; batzutan antxiñako jaunen artean "Zuriana" esaten jakenen zerrenda sartzen da. Oneik erri-ipuiñen giroan sartzen dira.
- (12) Bizkai'ko jaunen zerrendea, urterik urtera, F. Sesmero'-ren idaztiaz aurkitu leike: La Casa de Juntas de Guernica. Colección Temas Vizcaínos. Bilbao, 1975, 53-54 or
- (13) Monreal G. Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya. Bilbao, 1974, 49 or.
- (14) Cfr. Julio Ortega Galindo'ren idaztiaz: Los Caballeros Corregidores del Señorío de Vizcaya (siglos XVII y XVIII). Bilbao, 1965. 353 or.
- (15) Cfr. Ricardo Gomez Rivero'ren azterketa: Las atricciones de las Juntas, Regimientos y Diputaciones vascas en la época moderna, en "Jornadas sobre Cortes, Juntas y Parlamentos del pueblo vasco". Sección de Derecho. Eusko Ikaskuntza. San Sebastián, 1989, 98-99 or.
- (16) Bertan 99 or.
- (17) Vazquez de Prada. Mercedes: Negociaciones sobre los Fueros entre Vizcaya y el Poder Central, 1839-1877. Bilbao, 1984, 396 or.

### **GERNIKAKO BATZARRAK**

Euskalerrria ederra bai da  
zure izena zazpitan,  
gizontasuna izan zenduan  
zure gidari bidetan;  
berezko lege zoragarria  
zenduan zure zaiñetan,  
egia eta maitasun garra  
zure buru-biotzetan.

Berezko legez erri-zaleak  
izan ziran arbasoak,  
orregaitikan esaten eutsen  
abertzale demokratik;  
erri aundiak eta txikiak  
artzen zituan Gernikak,  
bizitasunez inguraturik  
euren biotz ta gogoak.

Erri bakoitzak eukan deiera  
eta here jar-lekua,  
gizon aundi lez itz egiteko  
agertuz here gogua;  
era onetan azaltzen eben  
jakiturizko burua,  
danen iritziz zuzenduagaz  
Bizkaiko bizi-modua.

PAULIN

### **DEIA'TIK ARTUA**

Atzo Arrien'dar Gregorio'k eskeiñi eban berbaldia guztiz atsegiña izan zan. Euskarazaleak Alkartearen oarrak diñoenez, "Arrien'dar Gregorio. irakaslea eta kondaira-arloan dotoradutza lortu dauan jakituna dogu eta bere jakituria ederto agertu eban atzo. Gai bi azertu eban itzaldian, alkarregaz zer-ikusia daukenak baiña ez bardin-bardiñak: Gernika'ko Batzarren eta Bizkaia'ko Jaunaren kondaira.

Arrigarri egin jakun gure erriaren kondairan eta ain antxiñatik. albo-errietakoak egin daben alegiña gure

eskubideak kendu eta gu eurakanduteko eta Bizkai'ko jaunak berak be Gaztelako erregeakaz eukazan artuemonak zirala-ta, geroago ezkontzea bide zala-ta zelako arriskuan jarri eban gure aberriaren buru-jabetza.

Gernika'ko batzarretan eutsi jakon obeto euskal-zale-tasunari, baiña andik be iñoz kanpora botaten ebezan, aldi baten. gaztelera irakurten eta idazten ez ekien erri-ordezkaririk.

Eskerrak Arrien'dar Gregorio'ri bere itzaldi eder one-gatik".

# EUSKAL AMA-AGAINTEAREN JATORRI-OINARRIAK

### **Etxea ta sendia**

Euskaldunontzat ETXEA ez da bakarrik lau ormen artean eta teillaturen azpian, euria, aizea eta beste izadiaren indarretatik jagoteko bizilekua edota eregikuntzea izan.

Gure arbasoentzako etxeak beste esangura zabalagoa besteko sakonagoa eukan, arean da: sendiaren, etxeoen, aterpe, bearleku, batzarleku, ikastola, eleiza eta illobia, arrillobia, ain zuzen be. Etxeak indar aundia artzen eban.

Etxeak leiñu edo askaziaren ezaugarri garbia agertzen eban. Belaunaldirik belaunaldi sortuta, gure Erriaren legezko ardatz nagusi biurtu zan. Etxetik izena eta izana etorkezan bere bizilagunei. Bala, etxea zer edo zer sakratua zan.

Euskal sendia, etxeoak, etxe beragaz betidanik lotuta egoan: ilburuko askearen araua, ezkonduen alkartzeko araua, senar-emazteen arteko alkar-eskubideen araua. Legearen aurrean gizon-emakumeen arteko bardintasuna.

### **Etxeko jauna ta andrea**

Euskal etxean erakunde nagusi bi bereizi bear geunkez: ETXEKO JAUNA eta ETXEKO ANDREA. Bakotxa here zeregin eta betebearrakaz.

Etxea, erdigune bereko esparru biribil bik osotzen eben: etxea - eregikuntzea - eta etxaldea. Kanpoko esparrua, au da, etxaldea edo bazterrak, baso, larra, solo, lanabes, abere eta etxeari datxekiozan etxalekuek egiten eben. Bere betebearrik garrantzitsuena sendiarentzako ekoiztea izango zan.

Etxealdearen ardurea etxeko jaunarengan etzan. Barruko esparrua, ostera, zeatz-meatz adirazota etxea dana, sukalde eta etxeko beste gelek osotzen eben. Bere betebearrik garrantzitsuenak egitea eta banaketea ziran. Etxebarruko ardurea emakumearena zan, ETXEKO ANDREARENA.

Ekoizte arloan emakumeak gizonari laguntzen eutson eta etxeari egokonez, gizonak emakumeari. Aginte osogarrizko bi dagoz egon, beraz. Emakume eta gizonaren arteko bearren banaketea ez zan lurraldekakoa, arlorik-arlokoa baino.

Kortea, etxe barruan egon arren, gizonari egokon.

Baratza, kanpoan egon arren, baina etxetik urre, andreari egokon. Gizonak, indartsuago zalakoan, kortea bereganatzen eban, ostera, baratza, etxeondoan egonda eta janarietarako garrantzia ebanez, emakumearen esku lotzen zan. Emakumearen ardurapean etxea bera egoan eta.

Ekoiztutako guztia danon, bion, ondasunarena zan, senar-emazteena: DANA BIONA. Au da legearen, foruaren, aurreko gizon-emakumeen arteko bardintasuna.

Guzti au, ondasunak/etxea bikotearen arteko alkarkizunari buruzko euskal gogamen orokorreri jagoko: DANA ETXERAKO. Ekoiztutako guztia etxeoen zerbitzuan dagoala: ETXEA DANONTZAKO.

DANA BIONA - DANA ETXERAKO -- ETXEA. DANONTZAKO

Ezkontzan senar-emaztegai biek ekarrezan ondasun guztiak biontzako izango ziran. Ezkontzak zirauan artean eskuratzen ebezan ondasunak biontzako ziran antzera.

Arean da, ezkonduen alkartzeko arauaren arabera.

### **Eskubideak eta eginbearrak**

Etxeko andra barria etxea eta illobiaz jaubetzen zan. Emazte barriak here etxea eta ildakoak itziko ebazan, here gizonaren sendiarenak onartzeko, ordutik aurrera biritzen egongo zan etxe barriaren ildakoak gurtzeko.

Bein etxe barrira eldutakoan, agintearen ezaugarriak emongo eutsoezan: burduntzia edo burduntzalia. Sukaldeko sutsua etxearen ezaugarria zan eta.

Ezkontzaren egunetik eta aste betera illobia here mendean artuko eban. Bern amaginarrebarengandik argizaia eta ogia artuko ebazan, gero illobiaren aurrean eskeintzak (olatak) eta otoitzak egiteko.

Benetan antxinako oiturak dira, urteen zulo baltzean sortutakoak. Laminen denporetatik gure gizartera elduta-koak.

Une onetatik aurrera emazte barria ETXEKO ANDREA izango zan.

Etxeko andreak, beraz, erlijiotasunaren bitartekotasun goienena eukitzeko ardura eban, ezaugarri oneen bidez:



argia, bizitza, ernaldindarra, osasuna, maitasuna, eriotza eta biziraupena, erainketa eta azibatzea, eta abar... Ekin-tza guzti oneek berak zuzenduak ziran.

Betebear oneen onarpena, ezkonduen alkartze eta senar-emazteen arteko alkar-eskubideen arauen zati garrantzitsuenetarikoa bat zan.

Betebear orreek onartu ezean, etxearen ardura ez joian ezkonbarriengana. Eta bein areek onartuak izan ezker, etxearen jaubetasuna euren esku gelditzen zan, etxean senarraren anai-arrebak bizi arren.

Bada. etxeko andrearen ardurapean ildako eta erlijio-arenganako artuemonak gelditzen ziran, baita etxeko sua be. Berak etxea eta etxekoak kandela batez Kandelaria egunean bedeinkatzen ebazan, senarra barru.

Bere ardurapean seme-alaben erlijio, gizarte eta kultura ikasketak egozan. Irakaste oneei etxeko andreak bere ukutua eta eskua emoten eutsezan.

Etxea eta gizartearenganako umei betebearrak bete eragitea amari, etxeko andreari, egokon. Urre-urretik jarraituko eutsen, ea betebear orreek bete ebezanentz.

Batzuetan, larregikeriaren larregikeriaz, aginte sendoa nagusikeria bihurtuz, baiña etxeko zintzotasuna eta arrotasunari leentasuna emonez eta eutsiz.

### Etxeko ondasunak

Ezbairik ez dago, erri-jakintzan gizonagazko emakumearen garrantzizko leku au. euskal senar-emazteen arteko alkar-eskubideen arauan agertzen zan bien arteko bardintasunagaz bat etorrena. Bardintasun au etxeko ondasunenganako alkarren ardurapean ezeze, baita emakumeak oinordeko izateko eban eskubidean be, seme nagusia edo semeak izan arren, agiri-agirian egoan. Legearen aurrean gizon-emakumeen arteko bardintasuna.

Oitura oneek artzainak erdi artzain erdi baserritar biurtu ziranetikoak ei dira. Bada, orain millaka urtetatik onakoak.

Baleiteke artzain edo arrantzale be ziranetan, erdi txabolana erdi baserriko areetan nor edo nork ardurapean gelditu bear ebala eta, emakumeen agiante aundiko gizarte mota onetara eldu zirala gure arbasoak.

Orregaitik gure artean etxeko andrearenganako begirune aundiori.

Orregaitik gure artean etxeko andrearen eragin sozial sendoa, senarra noiz zer jantzi bear dauan esateraiñokoa.

Eme-demokrazia antzerako, babespe beste menpekotasun. Euskal AMA-AGINTEA.

Bakion, 1994.eko urtarrilaren 9an  
Iniaki MARTIARTU

### Bibliografia:

EUSKALDUNAK III alea - J.M. Barandiaran / J. Altuna  
- ETOR

EUSKAL ETNIA - M. Estomba / D. Arrinda - EGEV  
EUSKAL HERRIA, Historia eta Gizartea - J. Intxausti  
LAN KIDE AURREZKIA

## EUSKALTZAINDIK 75 URTE

Aurten ospatzen dau Euskaltzaindik bere sortzetik 75n.urtea.

Erakunde onek Diamantezko Eztegua aundikiro ospatu nai dau, antza dagoenez. Ondo dago.

Ospatze on egokia izan daiten, bere bizitzaren azterketa sakon bat egin bear leuke eta egingo dauala uste dogu. Aztergairik aundiena 1968n. urtean oker artu zan Euskera batuaren bideko erabagiak izan izan bear leukee.

Orretarako laguntza ez dautsegu ukatuko euskaltzaindiari eta erakunde osoari. Izan be Euskaltzaindik zaregin aundi bat eukan gure izkuntzaren kondairan, eta urte orretara arte egokiro beteten eban zeregin ori, baiña urte orretan okerreko bide batzuk artu ziran eta batasuna lortu -bearrean bitasuna edo sakabanatzea lortu zan.

Joan dan urrillaren lenengo egunean, Euzkadi Irratititik itaun au egin euskuen: "Zer eskatuko zeunskioe Euskaltzaindiari". Orduan bost eskari egin geuntsozan eta ona emen bostak, labur-labur:

1.- Arriskuan dagozan euskalkiak indartu, berbaz eta idatziz.

2.- Euskera idatzitik atxea zearo kendu.

3.- Euskaldun guztien akademia izan eta ez batu-zaleena.

4.- Batura Bizkaiearen berezitasunak sartu.

5.- Erdel itzal ez onartu ain errez eta ugari.

Antza dagoenez, Euskaltzain -buruak entzun eban gure eskaria. Eta erantzuna be emon ei eban: Atxea kentzea atzera egitea izango litzakela. Gaur zerbait gaiñeratu bearrean gagoz: Atxea kentzea ez litzake izango atzerakuntza, aurrerakuntza aundia baiño. Ez begi izan Euskaltzain -Buruak atzeratuta geratzeko bildurrik, izkuntza-arloan garrantzi geiago dauka erreztasunak, eta au guztien aldetik esker onez artua izango litzake. Gaztelereak berak be nai izango leuke daukan idazkera okerra zuzentzea eta euren atxea kentzea. Gurea ez litzake besterik lengo Euskaltzaindiaren bide egokira biurtzea baiño. Eta au gauza ederra da, zalantza barik, 75n.urtean egiteko.


**EUSKALDUN BARRIENTZAT**

**ITZ-SALDA**

K	~	L	r	z	-	R	D	1	F1	BicI	H	R			
B	G	'S	V	NU)	C	A	y	R	z	U	N	8			
0	5	4	S	0	W	2	8	G	R	S	L	T	R		
Ni	T	N	X	2	T	N	p	17	~	x	~	y	R		
	N		F	N	G	T	R	z	N	S	1	N	K		
z	B	C		H	B	R	X	T	10	8			g		
N	5	K	O	X	R	n	i	v	K	O	Z	X	~	T	
T	A	y	M	N	J	c	5	C	L	H	t	s	M		
~	1	1	2	C	3	y	Y	K	~	!	M	N	D	C	8
N	t	3		T	X	!	T	Z	M	Ñ	S	U	N	E	
y	-	K	S	Y		M	1	L		0	T	F	i	n	x
ti	~	H	o	J	X	S	A	R	~	R	R	T			
M	T	!	N	a	Z	u		K	P	D	6	C	V		
S	B	E	!	6	1			T	N	K	J	~	!	N	


Itz-salda onetan, amabi itz sartu doguz. Aurkituko dozuz?

- Jakintza
- Osasun
- Narru
- Arrano
- Kaltzerdi
- Abarketa
- Izkillu
- Bitxi
- Sarrera
- Zulo
- Begiko
- Une



Barrengo arra

(VIAIr1wu)



Kate bi daua

(S J,-E)



8 Ezberdintasunak aurkitu bear dozuz!

**KARMELE**

## IRAKURTEN

Beti bezela asteburuko egunkariak nire aurrean dodaz. Deia'k domekero dakarren "Igandea" alea dot eskuetan. Domekea da euskeraren arloan egunik ugariena, edo beintzat Deia'k alearen erdiko orrialdietan euskeraz geien idazten dauan eguna. Irakurteko be, asteburua danez, asti geiago geratzen jakun eguna; or gabiltz ia euskal munduak guretzat ezer ulergarririk ete diñoan jakiteko prest.

Batzutan suertatzen da, uda onetan lez, Deia'ko dagonillako ale baten "60 gradu azpi zero" irakurri bear izatea. Antartiko lurraldetan izaten dan otza adierazteko, -zero azpitik edo zero azpian 60 gradu- dagozela esateko edo esaterakoan, baleiteke.

\* \* \*

Beste batzutan, jakingarri diran idazlanak gozatzen doguz eta onetan saiatu bear gara ango edo emengo barrietan sakontzen, gure izkuntza gogoz daztatze eta gozatze-ko.

Beraz, bere garrantziaz oarturik, Kortazar'tar Jon'en "Carles Riba begietan" idazlana aukeratu dot, azalean baiño ez bada be, zeozer aztertze gai dalarik.

Bertan, Kortazar'ek, Carles Riba'ren bizitza azaltzen dau, aurtan bere jaiotzaren 100 urte betetzen dirala jakinaraziz. "Pujol lehendakariak zabaldu du Riba'ren omenez eraturiko omenezko urte hau ekintzez eta hitzaldiz ongi ornitua. Era askotako ekintzak izango dituzte aurtan katalanek", bere esanez.

"Riba'k bere joeraz, mende hasierako printzipioak mantendu nahi zituen, hezkuntza eta jakintza, etika eta estetika indarkeriaren gaintik". Onexek barriro Kortaza'ren berbak.

Riba'k, besteak beste, Homero'ren "Odisea" liburua itzuli ebala diño: "Katalan guztiak itzulpen eder eta zorogarri gisa onartu duten "Odisea".

\* \* \*

Azkenez, esan gura neuke irakurgai au izan dala gogora ekarriaz egin deustana gure Santi Onaindia'ren itzulpen eder eta paregabea, au da Homero'ren "Odisea" bizkaieraz berak egiña. Geu be, gogo onez eta zorogarri gisa artu doguna, bai orixe!

Santi Onaindia'ren lana guztiz oparoa izan da. Bere bizi

guztian zear, gazte-gazterik asi eta idazteari, irakasteari eta euskal lanetan dagokionari be geratu barik ekin deutso. Euskal mundua, ainbeste irakurgaiez osoturik, aberastu egin dau. Au ez da, gero auntzaren gaueko eztula. Gure uste osoa, gure gomuta atsegiña dauka.

LARRONDO

### OIÑORDEKOTZA

Zorionezko agur zintzoak:  
opari eder... beroa...  
Ator etxera gurasoekaz  
Errian dok ba geroa.  
Asabakandik artu dokana  
Oiñordekotza naroa  
I az gurean etorkizuna  
Poz eta gogo oparoa.

Oroitzapenen bidezidorrak  
Zabaldietan lausotzen,  
Ametsen ego igezkorretan  
Gozatsu doaz urruntzen.  
Zentzumenaren lillura gizen  
Gure gogoak zauritzen  
Gabon aroan kadentasunak  
Guztiok gaitu ikutzen.

Gure ioranak, gogo-landetan  
Astiro doaz urruntzen  
Zoro alenak! Ez ete gara  
Zer datorkigun oartzen?  
Aienatzeko zori gaiztoa  
Ez ete dogu nabaitzen?  
Urrunduz doazan oroitzapenak  
Alegin daigun sustraitzen.

AURRE'tar ANTON

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joatan da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*

**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa